

## ORBEL JOKOAK 2024. ahotsak.eus-eko galdera-erantzunak

- 1.- Nondik datorkio Kruz Mari Alberdi Alberdiri *Poxpi* ezizena? **Gaztetan dantzan poxpolin jantzita ibiltzen zelako**
- 2.- Julen Sagarzazu Irureta, *Julen Txiki*, Gipuzkoako zein futbol zelaitan aritu zen dantzan? **Donostiako Atotxan**
- 3.- Pablo Olalde Etxabe, *Paulito*, zenbat urtez aritu zen mazeru? **40 urte**
- 4.- Antonia Larrañaga Gabilondo neskame aritu zen, “Duque de Mar” txaletean. Zenbat neskame euskaldun zeuden han? **4 euskaldun eta 4 erdaldun**
- 5.- Manuela Zabala Zabala. Nola lortzen zuten ia urte osorako *urdaixe*? **Auzolanean urtero hiltzen zuten txerriarekin. Odolkiak, lukainak eta txorizoak eginda.**
- 6.- Erditu ondoren emakumeek nora egin behar zuten lehen irteera? **Elizara, ezin ziren kalera irten apaizak zeremonia bat egin arte (Maria Asuncion Plazaola Baztarrika).**
- 7.- Martirietako erromerietan zenbat ordaintzen zuten sarrera mutil/gizonezkoek? Zenbat neska/emakumeek? **2 pezetatik hasi eta 5 durora arte (25 pezeta) gizonek, emakumeek debalde (Angeles Aramendi Aranberri eta Tomas Zubizarreta Zendoie).**
- 8.- Maria Paula Mengual Larrar. Zenbat urtez izan zen *Profesionaleko* zuzendari? **4 urtez**
- 9.- Iraurgi abesbatzan, zeinek erakusten zien alemanez kantatzeko ahoskera? **Erretoreak. Alemanian 13 urtez bizi izan zen, bazekien alemanez (Manolo Larrañaga Juaristi)**
- 10.- Zertarako erabiltzen ziren pilota *goxoak*? **Partida aurretik eskuak berotzeko (Jesus Larrañaga Larrañaga Txikito VI)**
- 11.- Zer ordutan jaikitzen zen Maite Aldazabal Larrañaga *Galo*, *erreportzaketan* aritzeko? **05:30ean, umeak eskolara eraman aurretik**
- 12.- Zein izaten zen txapela egiteko prozesuko aurreneko eginkizuna? **Artilea kardatzea (Justino Sasieta Irulegi)**
- 13.- Eustakia Erribera dendan produktu asko saltzen ziren, baina zeintzuk ziren bertan egindakoak? **Erroskilak, txurroak eta karameloak (Maria Consuelo Domenech Arrieta)**
- 14.- Oikian bizi zen gizon batek zer eman zion Ramon Zubizarreta *Landakandari* panderoa jotzeagatik? **Dolarra. Landakandak pentsatu zuen 5 durokoa eman ziola.**

15.- Kontxi Larrañaga Ezeizak, 12 urterekin eskolak amaituta, non jarraitu zuen ikasten gero? **Astarbeko gau eskolan**